*bertsoaroa
2016 _
del _20 de OCTUBRE
al _10 de NOVIEMBRE
^



LG NA 1870-2015

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

Nafarroako bertsozale elkartea

Gobierno de Navarra

## ACTUACIÓN DE BERTSOLARIS

**20 de octubre**, jueves. 20:00
Sala del Instituto de la Plaza de la Cruz

Bertsolaris: Jon Maia, Oihana Iguaran, Julen Zelaieta, Sustrai Colina, Aimar Karrika y Alaia Martin.
Presentador: Iker Iriarte

Este año Bertsoaroa comenzará con una actuación de bertsolaris. Como es habitual, serán bertsolaris de primer nivel los que subirán al escenario. Julen Zelaieta y Aimar Karrika serán los representantes navarros en esta primera actuación. Junto a ellos dos bertsolaris de gran experiencia, el lapurtarra Sustrai Colina y el guipuzcoano Jon Maia. Para completar el sexteto, dos bertsolaris que han cantado en la última final del Campeonato de Gipuzkoa, Alaia Martin y Oihana Iguaran.

## ACTUACIÓN ESPECIAL

**25 de octubre**, martes. 19:30
Patio del Civivox Condestable

*"Momentuari helduz" (Atrapando el momento)*
Cantantes-bertsolaris: Oskar Estanga y Alazne Untxalo
Teclado: Satxa Soriazu
Bajo: Aritz Luzuriaga
Saxo: Alberto Arteta

Se estrena en Pamplona este novedoso espectáculo que combina bertsolarismo y jazz. El proyecto surgió a raíz de la unión de bertsolaris y músicos para dos actuaciones en Puente la Reina. Visto el éxito que tuvo, surgió este proyecto que va más allá de la formula bertso-jazz, ya que quiere trabajar la improvisación conjunta de la palabra y la música. Estos improvisadores de palabras son también músicos, los músicos son también muy improvisadores, y así elaboran melodías de bertsos, juegan con canciones conocidas y dan cabida a músicas y palabras que surgen en cada momento. Una actuación en la que aflorará todo aquello que surja al atrapar el momento.

## CONFERENCIA EN EUSKARA

**27 de octubre**, jueves. 19:30
Sala de coferencias del Civivox Condestable

*Improvisación cantada en el mundo. Zortziko zabala*
Ponente: Andoni Egaña

Hubo un tiempo en que los bertsolaris creían que ellos eran los únicos que conservaban la improvisación cantada, que sólo existía en Euskal Herria. Sin embargo, hace unos años se dieron cuenta de que no era así, que había otros pueblos y culturas que también practicaban el canto improvisado, cada uno con sus características. En los últimos años se han intensificado las relaciones entre los diferentes tipos de improvisación. El bertsolarismo está aprendiendo de otros tipos de improvisación y, al mismo tiempo, el bertsolarismo y el euskara tienen mucho que enseñarle al mundo. Andoni Egaña conoce a la perfección este viaje de ida y vuelta, ya que ha actuado como bertsolari en muchos países y también ha hecho de anfitrión a improvisadores venidos de fuera. En la conferencia dará cuenta de este enriquecedor intercambio, ilustrándolo con anécdotas y vivencias.

## ACTUACIÓN DE BERTSOLARIS

**3 de noviembre**, jueves. 19:00
Patio del Civivox Condestable

Bertsolaris: Unai Mendizabal, Sarai Robles, Eneritz Artetxe, Maider Arregi, Joanes Illarregi y Maddi Sarasua.
Presentadora: Ainhoa Aranburu

Como cada año Bertsoaroa va a dedicar una actuación a los bertsolaris más jóvenes. Dos navarros, tres guipuzcoanos y una labortana subirán al escenario. Durante los últimos años han participado en campeonatos, certámenes y actuaciones varias y representan una parte del prometedor futuro del bertsolarismo. La actuación de este año viene con otra novedad, será conducida por Ainhoa Aranburu. De su mano, tendremos ocasión de disfrutar con el hacer de las nuevas generaciones de bertsolaris.



*bertsoaroa
2016 _
del _20 de OCTUBRE
al _10 de NOVIEMBRE
^

## ACTUACIONES INFANTILES

**5 de noviembre**, sábado. 12:00
Civivox San Jorge

*"Plaza bete poz"*
Dinamizador: Oskar Estanga

Verbena infantil. Canciones, juegos y bailes. En esta verbena infantil, se pasará desde las canciones y los juegos más pausados al movimiento, hasta llegar al baile. Así, se empezará con las canciones participativas que conocen los pequeños (del estilo de Ran-Roberra). También se jugará con la voz y la improvisación: pregunta- respuesta, repeticiones… y se escucharán y cantarán canciones que los más mayores pueden conocer (maketume, ping-pong pilota), para posteriormente trabajar coreografías basadas en ellas.

**5 de noviembre**, sábado. 18:00
Civivox San Jorge

*"Kontu eta kantu"*
Cuentacuentos: Fernando Anbustegi

Como su propio nombre indica, cuentos y canciones se entremezclan en este espectáculo. Cuentos y versos nuevos, adaptados a los tiempos actuales. Además de pasar un buen rato, se pretende fomentar la afición a la literatura y el bertsolarismo, así como desarrollar otros valores.

## ACTUACIÓN ESPECIAL

**8 de noviembre**, martes. 19:30
Patio del Civivox Condestable

*Performance "Oholtza"*
Artista-creador: Beñat Krolem
Bertsolaris: Jon Martin y Jone Uria

"Oholtza" es un conjunto de estructuras de construcción, móvil y articulable, que ofrece al bertsolari un lugar para realizar su actuación. Es un juego de construcción improvisado, que se realiza mediante conjuntos de piezas. Son estructuras que se proyectan, diseñan y montan en el mismo momento de la actuación, mientras cantan los bertsolaris. Es un estudio de proceso del bertso, de las relaciones y de la actitud corporal de los bertsolaris. Allí, el mismo bertsolari transforma y levanta el altar de las palabras.

## ACTUACIÓN DE BERTSOLARIS

**10 de noviembre**, jueves. 20:00
Sala del Instituto de la Plaza de la Cruz

Bertsolaris: Unai Iturriaga, Saioa Alkaiza, Amets Arzallus, Agin Laburu, Beñat Gaztelumend y Julio Soto
Presentador: Fernando Anbustegi

Como es habitual, esta edición de Bertsoaroa culminará con otra actuación de primer nivel. Los seis bertsolaris que subirán al escenario son veteranos jóvenes y jóvenes veteranos. Amets Arzallus, Julio Soto y Beñat Gaztelumendi son, respectivamente, campeones de Euskal Herria, Navarra y Gipuzkoa. Los otros tres bertsolaris han realizado innumerables actuaciones durante los últimos años y entre todos pondrán un gran broche final a Bertsoaroa, en una actuación que conducirá Fernando Anbustegi.

*NOTAS*
** Entrada libre, salvo para las actuaciones de la programación infantil en euskara.*
** Para el acceso a los actos programados en la sala del Instituto de la Plaza de la Cruz se deberán recoger invitaciones en la misma sala, desde una hora antes del comienzo de cada actuación.*

***bertso***aroa*
2016 _
URRIAREN _*20tik*
AZAROAREN _*10era*
^



LG NA 1870-2015

Ayuntamiento de Pamplona Iruñeko Udala · Nafarroako bertsozale elkartea · Nafarroako Gobernua



## BERTSO-SAIOA

**Urriak 20**, osteguna. 20:00
Gurutzeko Plazako Institutuko Areto Nagusia

Bertsolariak: Jon Maia, Oihana Iguaran, Julen Zelaieta, Sustrai Colina, Aimar Karrika eta Alaia Martin.
Gai-jartzailea: Iker Iriarte

Aurtengoan bertso jaialdi batekin hasiko da Bertsoaroa. Ohi bezala, puntako bertsolariak igoko dira taula gainera. Julen Zelaieta eta Aimar Karrika izanen dira ordezkari nafarrak lehen saio honetan. Haiekin batera eskarmentu handiko bi bertsolari, Sustrai Colina lapurtarra eta Jon Maia gipuzkoarra. Seikotea osatzeko, azkeneko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan Ilunbeko finalean kantatu duten bi bertsolari, Alaia Martin txapeldunordea eta Oihana Iguaran gaztea.

## EMANALDI BEREZIA

**Urriak 25**, asteartea. 19:30
Kondestablearen Jauregiko Civivox Patioa

*"Momentuari helduz"*
Abeslari-bertsolariak: Oskar Estanga eta Alazne Untxalo
Teklatua: Satxa Soriazu
Baxua: Aritz Luzuriaga
Saxoa: Alberto Arteta

Iruñean estreinatuko dute bertsoa eta jazza uztartzen dituen emanaldi berritzaile hau. Gareserako bi emanalditarako bertsolari eta musikariak elkartzetik sortu zen proiektua. Emanaldien arrakasta ikusita, bertso-jazz formulatik haratago doan proiektua da "Momentuari helduz", hitza eta musika elkarrekin inprobisatzea lantzen duen ikuskizuna baita. Hitz inprobisatzaile hauek musikari ere badira, musikariak ere oso inprobisatzaile, bertso doinuak garatuz, bestelako doinu ezagunekin jolastuz eta momentuan sortutako melodia eta hitzei leku eginez. Momentuan gertatzen denari helduz aterako den emanaldia.

## HITZALDIA

**Urriak 27**, osteguna. 19:30
Kondestablearen Jauregiko Civivox Hitzaldi aretoa

*Inprobisazio kantatua munduan. Zortziko zabala*
Hizlaria: Andoni Egaña

Garai batean bertsolariek uste zuten haiek zirela kantu inprobisatua lantzen zuten bakarrak, Euskal Herrian baino ez zela existitzen. Orain urte batzuk, berriz, ohartu ziren ez zela horrela, munduan bazirela kantu inprobisatua lantzen zuten beste herri eta kultura zenbait, bakoitza bere ezaugarriekin. Azkenaldi honetan, kantu inprobisatzaileen arteko harremanak ugaldu dira. Bertsolaritza ikasten ari da beste kantu inprobisatuetatik eta, era berean, bertsoek eta euskarak badiote zer irakatsi munduari. Bi norabidetako bidaia hori ederki aski ezagutzen du Andoni Egañak, munduko hainbat herrialdetan ibili baita bertsotan eta kanpoko inprobisatzaileei gurean ere harrera egin baitie. Elkar trukaketa aberasgarri horren berririk emanen digu, anekdota eta bizipen ugariz hornituta.

## BERTSO-SAIOA

**Azaroak 3**, osteguna. 19:00
Kondestablearen Jauregiko Civivox Patioa

Bertsolariak: Unai Mendizabal, Sarai Robles, Eneritz Artetxe, Maider Arregi, Joanes Illarregi eta Maddi Sarasua.
Gai-jartzailea: Aihnoa Aranburu

Urtero bezala, bertsolari gazteei emanaldi bat eskainiko die Bertsoaroak. Bi nafar, hiru gipuzkoar eta lapurtar bat igoko dira oholtzara. Azken urteotan txapelketetan, sariketetan zein plazan trebatzen ari dira eta bertsolaritzaren etorkizun oparoaren parte dira. Beste nobedade batekin dator aurtengoa, Ainhoa Aranburu izanen baita saioa gidatuko duena. Haren eskutik, belaunaldi berrien bertsolaritzaz gozatzeko parada izanen dugu.

***bertso***aroa*
2016 _
URRIAREN _*20tik*
AZAROAREN _*10era*
^

## HAURRENTZAKO EMANALDIAK

**Azaroak 5**, larunbata. 12:00
Sanduzelaiko Civivoxa

*"Plaza bete poz"*
Partaidea: Oskar Estanga

Haurrentzako berbena. Kantuak, jokuak eta dantzak. Erromeria honetan, jolas pausatuekin hasi eta mugimendura pasatuko dira, dantzara. Hala, txikiek ezagutzen dituzten kantu parte hartzaileekin hasiko dira; Ran-Roberra bezalakoak, esaterako. Ahotsarekin eta inprobisazioarekin ere jolastuko dira: galde-erantzunak, errepikatzeak... Handiagoek ezagutu ditzaketen kantuak entzun eta abestuko dituzte (maketume, ping pong pilota...), ondoren kantu horien koreografia lantzeko.

**Azaroak 5**, larunbata. 18:00
Sanduzelaiko Civivoxa

*"Kontu eta kantu"*
Ipuin kontalaria: Fernando Anbustegi

Izenak berak azaltzen duen gisara, kontuak eta kantuak uztartzen dituen ikuskizuna da. Sorkuntza propioko ipuinak kontatzeaz gain, bertsoak tartekatzen dira. Ipuin berriak, bertso berriak, garai berriei egokituak. Literatura eta bertsolaritzarekiko atxikimendua bultzatzeaz gain, balore desberdinak garatzeko ipuin konta/kantakizuna izan nahi du "Kontu eta kantu"-k.

## EMANALDI BEREZIA

**Azaroak 8**, asteartea. 19:30
Kondestablearen Jauregiko Civivox Patioa

*"Oholtza" performancea*
Artista-egilea: Beñat Krolem
Bertsolariak: Jon Martin eta Jone Uria

"Oholtza" bertsolariari jarduteko toki bat eskaintzen dion eraikuntza-aldagaien multzoa da, mugikorra eta artikulagarria. Bat-bateko eraikuntza-jokoa da, pieza-multzoen bitartez osatzen dena. Emanaldiaren unean bertan proiektatu, diseinatu eta muntatzen diren egiturak dira, bertsolariak abesten duen bitartean. Bertsolariak, hitzekin egiten duen prozesuaren, harremanaren eta gorputzaren jarreraren arteko azterketa da. Bertan, bertsolaria bera hitzen aldare bihurtu eta altxatu egiten da.

## BERTSO-SAIOA

**Azaroak 10**, osteguna. 20:00
Gurutzeko Plazako Institutuko Areto Nagusia

Bertsolariak: Unai Iturriaga, Saioa Alkaiza, Amets Arzallus, Agin Laburu, Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto
Gai-jartzailea: Fernando Anbustegi

Ohi bezala, beste puntako bertso emanaldi batekin amaituko da aurtengo Bertsoaroa. Beterano gazteak eta gazte beteranoak dira oholtzara igoko diren sei bertsolariak. Amets Arzallus, Julio Soto eta Beñat Gaztelumendi Euskal Herriko, Nafarroako eta Gipuzkoako txapeldunak dira, hurrenez hurren. Beste hirurak ere plazaz plaza dabiltza azken urteotan eta guztien artean goi-mailako ikuskizuna eskainiko digute, Fernando Anbustegik gidatuko duen saioan.

OHARRAK
** Emanaldi guztiak doan dira, euskarazko haur programaziokoak izan ezik.*
** Gurutze plazako Institutuko aretoko emanaldietarako, gonbidapena aurkeztu beharko da. Gonbidapenak aretoan bertan banatuko dira, emanaldia hasi baino ordu bete lehenagotik.*